



Eragin

Euskara eta Literatura

DBHko 1. mailarako Euskara eta Literaturarako **Eragin** liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

Joseba Santxo
Josu Goikoetxea
Jon Ander Rojo
Nerea Atxega
Lander Azaola

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea
Josu Goikoetxea
Jon Ander Rojo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

UNITATEA	KOMUNIKAZIOA		HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA
	Ataria	Irakurmena	Gramatika		EGITEN JAKIN Komunikazio-jarduerak
1	<i>Muturreko muturrekoak</i> • Txikonen markak	<i>Non gogo, han zangoa!</i>	Perpaua eta haren osagaiak	Izen-sintagma	- Kirol baten arauak azaltzea <i>Xakea kirola da</i> - Hormako mezua
2	<i>Hori Donna-eta!</i> • Kalakan	<i>Koroarik gabeko errege-erreginak</i>	Aditz-sintagma	Deklinabidea	<i>Playlista</i> sortzea <i>Musika eta letra</i> - Izenburua
3	<i>Jantzi eta erantzi</i> • Balenziaga	<i>Gona denontzat; eskema zaharrak gaurkotuz</i>	Deklinabidea: kasu gramatikak	Aditz laguntzaileak: IZAN eta UKAN	- Gauzen balioa neurtzea <i>Zaharrak berri</i> - Puntuazioa
4	<i>Orriz orri</i> • e-bookaren aroa	<i>Hizkiak galdutako liburua, lipograma</i>	Deklinabidea: leku-denborazko kasuak	Aditza: aditz trinkoak	- Liburu-hautaketa egitea <i>Liburua amaitu behar al dut?</i> - Oharra eskolan
5	<i>Digitalaren on-gaitzak</i> • Turistentzako tresna	<i>Jantzita eramateko informatika</i>	Deklinabidea: gainerako kasuak	Aditza: aspektua	- Inkesta egitea <i>Tabletak, mugikorrak eta nerabeak</i> - Bat-bateko mezua
6	<i>Bihotza begietan</i> • Gure izarak: Barbara eta Unax	<i>«Gose Jokoak», errealitatearen kritika, fikzioan ezkutatuta</i>	Deklinabidea: mugagabea	Perpau motak	- Aurreikuspenak egitea <i>Kameratoia</i> - Sinopsia
7	<i>Enbor beretik</i> • Munduan barrena	<i>Ekialdetik iritsi zen Enara</i>	Perpaua: baldintza	Aditza: baldintza hipotetikoak	- Bidaia bat planifikatzea <i>Lau eskutara idazten</i> - Kontaketa
8	<i>Natura garaile</i> • Basque Team	<i>Amelia Earhart-en azken hegaldia: argitu gabeko misterioa</i>	Perpaua: erlatiboa	Aditza: NOR-NORK aditz laguntzaileak	- Aurkezpen-bideoa egitea <i>Maria, greziar euskalduna</i> - Aurkezpen-gutuna
9	<i>Mahaiaren bueltan</i> • Sagarra sartu ahoan	<i>Loditzen ez gaituen bakarra: plateren geratzen dena</i>	Perpaua: konparazioak	Aditza: NOR-NORI aditz laguntzaileak	- Nazioarteko menua sortzea <i>Arbaillarren elikabidea</i> - Oharra etxean
10	<i>Plan kilikagarriak</i> • Taupa-taupa	<i>Naturaren argi-ilunak: txanpon bereko alde biak</i>	Perpau osagarriak	Aditz laguntzaileak: Nor-Nori-Nork	- Gai bati buruzko iritzia ematea <i>Jane Goodall</i> - Interneteko iruzkina
11	<i>Direnik ez da sinetsi behar</i> • Mitoen erresuma	<i>Akilesen orpoa; ahulgune bakarra ote?</i>	Denborazko perpausak	Ahalera eta agintera	- Sineskeria bat gezurtatzea <i>Nola egiten dira horoskopoak?</i> - Irakokizuna
12	<i>Txapela buruan, ibili munduan</i> • Itsasontzi baten	<i>Haizea lagun</i>	Kausazko perpausak eta kontzesiozkoak	Subjuntiboa	- Kanpamentua antolatzea <i>Udaleku, AEBko esperientzia</i> - Izena emateko orria
ERANSKINA	Ariketategia, taulak, eskemak, programa osagarriak...				

HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA	LITERATURA-HEZKUNTZA		AMAIERAKO JARDUERAK
Lexikoa	Ortografia	EGITEN JAKIN Testu-tipologia	Jakingaiak eta testuak	EGITEN JAKIN	
Hitzen izaera eta sorkuntza 16	Data nola adierazi 17	Deskribapen-testua I • <i>Piraten uhartea</i> 18	Poema jostalariak I • <i>Don, don kikilikon; Dona, dona; Bilin bolo</i> 20	• Dekorazio-olerki bat osatzea 22	• <i>Patinajearen sekretuak</i> 🔗 24
Hitz motak 36	Orduak nola adierazi 37	Deskribapen-testua II • <i>Nafarroako harribitxiak: Erriberriko jauregia</i> 38	Poema jostalariak II • <i>Akerra ikusi dugu</i> 40	• Ipuin erritmiko bat ikastea eta antzeztea 42	• <i>Venezuelako orkestra gaztea</i> 🔗 44
Atzizkien sailkapena eta egile atzizkiak 56	Letra larrien erabilera 57	Egunerokoa • <i>Gure bitakora-koadernoak: Udalekuaren bloga</i> 58	Kopla zaharrak • <i>Eskeko koplak</i> 60	• Koplak osatzea 62	• <i>Mundu bete txapel</i> 🔗 64
Jatorri-atzizkia 76	Puntuazio-markak I 77	Albisteak • <i>Lehen izozki fluoreszentea</i> 78	Erromantzeak • <i>Lili eder bat</i> 80	• Erromantze ezagun bat bilatzea 82	• <i>Argitaletxe xarmagarria</i> 🔗 84
Zailtasun-atzizkiak 96	Puntuazio-markak II 97	Argibide-orria • <i>Flyboard-a, kirol-tresna berria</i> 98	Bat-bateko bertsolaritza • <i>Vietnamgo txerria</i> M. LUJANBIO - U. ITURRIAGA 100	• Bertsoen neurria identifikatzea 102	• <i>3Dko inprimatzea</i> 🔗 104
Izen abstraktuak sortzeko atzizkiak 116	-a itsatsia 117	Dibulgazio-testua: deskribapenezko azalpen-testua • <i>Xiangogerrariak</i> 118	Bertso jarriak • <i>Lehen sorospenetarako jarriak</i> XABI PAYA 120	• Bertsoak beren garai eta ideiekin lotzea 122	• <i>Filmak eta jatekoa</i> 🔗 124
Izenondoak sortzeko atzizkiak 136	Ba- eta -(e)z geroren idazkera 137	Dibulgazio-testua (kausa-ondorioa) • <i>Zirkulu mortua basamortuan</i> 138	Olerkigintza I: • <i>Hondar gorri: Azaro-lehena</i> XABIER LIZARDI 140	• Olerki baten abiapuntua identifikatzea 142	• <i>Azken desireri laguntzen</i> 🔗 144
Atzizki graduatzaileak 156	H letra 157	Elkarriketa • <i>Xabier Ormazabal elkarriketa</i> 158	Olerkigintza II: • <i>Etxea</i> KOLDO IZAGIRRE 160	• Olerki bat sortzea 162	• <i>Janari estratosferikoa</i> 🔗 164
Hitz-elkarketa 176	Hitz elkartuen idazkera 177	Lagunarteko e-maila • <i>Lagun ezkutua</i> 178	Antzerkia • <i>Petti buhamea</i> pastoralak PIERRE PAUL BERZAITZ 180	• Genero desberdineko testuak lotzea 182	• <i>Gozo, gazi, geza</i> 🔗 184
Hitz monosemikoak eta polisemikoak 196	Txistukariak I: s, x eta z 197	Gutun irekia • <i>Fast food ala ekolapikoa?</i> 198	Narrazioa I: ezaugarriak • <i>Zalakain abenturazalea</i> PIO BAROJA 200	• Pertsonaia bat deskribatzea 202	• <i>Uhandrearen miraria</i> 🔗 204
Hitz sinonimoak eta antonimoak 216	Txistukariak I: ts, tx eta tz 217	Iritzi-artikulua • <i>Teknologia berriak, arazo berriak</i> 218	Narrazioa II: ipuin literarioa • <i>Ispilua</i> JOXANTONIO ORMAZABAL 220	• Ipuin bat sortzea 222	• <i>Katu beltzaren historia</i> 🔗 224
Hiztegiak 236	Bait- partikularen erabilera 237	Eskabide-gutuna • <i>Musika-eskolako zuzendariari gutuna</i> 238	Narrazioa III: eleberria • <i>Galdurik</i> AINGERU EPALTZA 240	• Fikziozko pertsonaiak aztertzea 242	• <i>Ondo pasatzeko aholkuak</i> 🔗 244


DBH 1eko Euskara eta Literaturarako **ERAGIN 1** liburua 12 unitate didaktikotan antolatuta dago. Unitate bakoitzean hiru programa nagusi daude: **Ahozko eta idatzizko komunikazioa**, **Hizkuntzaren erabilera** (gramatika, ortografia eta lexikoa) eta **Literatura-hezkuntza** (jakingaiak eta testuak). Bestalde, **Egiten Jakin** izeneko atalak txertatu ditugu (lau unitateko), prozedurazko edukiei dagokien tokia emate alde.

Unitate bakoitzaren atariko orrialdeetan gai interesgarri bat aurkeztuko zaigu, oso era erakargarrian, ikasleak motibatuzko helburuarekin. Orrialde horietako behealdean lau hizkuntza-trebetasunak lantzen hasteko proposamenak daude, lauki banatan. Gainera, eskuineko orrialdean, gai orokorraren azpigi bat lantzen da beti, Euskal Herriarekin loturikoa. loturaren bat duena.



Laukitxo hauetan lau hizkuntza-trebetasunak lantzeko proposamenak daude: **Mintzamena**, **Entzundakoaren ulermena**, **Irakurmena** eta **Idazmena**.

1. programa. Idatzizko eta ahozko komunikazioa




Irakurtzeko gaitasuna
lantzeko testua.

Entzuteko testua atalean entzundakoaren ulermena lantzen da, gaurkotasan handiko gaien bitartez.



Testu pragmatiko laburrak **Egiten jakin**.

Hainbat egoera komunikatibo erreali aurre **Egiten jakin**.



Testu moten bereizketa, azterketa eta ekoizpena **Egiten jakin**.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarritzko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Matematikarako gaitasuna

Zientziarako gaitasuna

Teknologiarako gaitasuna

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Arterako gaitasuna

Mugimendurako gaitasuna

ZE HAR-GAITASUNAK

Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna

Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna


Elkarbizitzarako gaitasuna

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Izaten ikasteko gaitasuna

2. programa. Hizkuntzaren erabilera (gramatika, ortografia eta lexikoa)

Hizkuntzaren erabileraren atalean **Gramatika**, **Ortografia** eta **Lexikoa** lantzen dira. Alde teorikoak eta jarduerak praktikoek osatzen dute lan-saio bakoitza.



Gramatikak bina orrialdeko bi saio ditu unitateko. Gramatika osoa da, hizkuntzaren osagai guzti-guztiak lantzen dituen, baina aldi berean oso praktikoa.

Lexikoa atalak hiztegia aberasteko bideak eskaintzen ditu. **Ortografiak** atalean, berriz, zuzen idazteko arauak azaltzen dira. Bi-bietan daude ariketak.

3. programa. Literatura-hezkunza (jakingaiak eta testuak)

Langaia Testua abiapuntu, azalpen argiak (kontzeptu giltzarriak nabarmenduta) eta amaiera praktikoa. Langaiei laguntzeko, eskemak, irudiak eta datu jakingarriak.



Testuak Eduki teorikoak testuan bertan lantzeko azpiatala. Ulermen literarioa garatzen laguntzeaz gain, ikasitakoaren barneratze-maila egiaztatzeko balio du.



Egiten jakin atalean sormen eta ezagutza literarioarekin lotutako jarduerak daude, beti ere landutakoaren erreferentzian.

Unitate bakoitzaren amaieran, landutako **Ideia nagusiak** daude laburbilduta. Hurrengo bi orrialdeetan **Amaierako jarduerak** proposatzen ditugu, unitateko langai guztien berrikusketa egiteko. Hemen hiru programetako atal guztiak berrikusten dira. Amaitzeko, testu-tipologian landutako testu motaren berrikusketa praktikoa egiten da.



5

Digitalaren on-gaitzak

Euskara

JAKIN

- Deklinabidea eta aditzaren aspektua
- Zailtasun-atzizkiak
- Puntuazio-markak

EGITEN JAKIN

- Inkesta egitea
- Bat-bateko mezua idaztea
- Argibide-orria idaztea


Literatura

JAKIN

- Bat-bateko bertsolaritza

EGITEN JAKIN

- Bertsoen neurria identifikatzea



MINTZATU

- Zure ustez, gaur egungo mundu digitalak mesede ala kalte gehiago dakar? Zergatik?
- Komentatu argazkiak banan-banan, eta esan erabilerak digital horiek zuzenak ala okerrak diren.
- Zer egin dezakegu erabilerak okerrak zuzentzeko?



ENTZUN



Entzun *Gaitz digitalak* testua eta erantzun:

- Zer dira hackerrak? Eta zibernautak?
- Zein dira birusik okerrenak? Zer egiten dute?
- Zein dira birusen kontrako neurririk onenak?

Hau da hau!

BASQUE COUNTRY
MAGAZINE
 Turistei begira

Basque Country Magazine Euskadira bidaiatzeko asmoa dutenei zuzendutako aldizkari digitala da.

Bost hizkuntzatan dago eskuragarri: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta alemana.

Edukia oso bisuala da, eta kalitate handiko irudi eta bideoak ditu. IOS eta Android tableten moldakortasuna baliatzeko berariaz diseinatuta dago.

Paper euskarrian ere eskura daiteke. Guztiz doakoa da eta publizitaterik gabea.

**Errealitatea areagotuz**

Eusko Jaurlaritzaren turismo sailak Euskadi Turismo Basque Country aplikazioa sortu du, bisitan datozkigun turistei beren gailuetara jaisteko moduko informazio lagungarria eskaintzeko. Aplikazioak bost kilometroko erradioa hartzen du, eta errealitate areagotuaren aukera ere badu.


**IRAKURRI**

- Zer da *Basque Country Magazine*?
- Zein dira aldizkari horren ezaugarri nagusiak?
- Zer da Euskadi Turismo Basque Country?
- Zer dakizu errealitate areagotuaren inguruan?

**IDATZI**

GPSa tresna erabilgarria da mendi-irteeretan. Baina ba al dakizu nola dabilen? Bilatu informazioa Interneten eta idatzi labur-labur:

- Nolakoa den itxuraz.
- Nola funtzionatzen duen.



Jantzita eramateko informatika

Badira jada urte batzuk informatika geurekin daramagula. Izan ere, gaur egun edonora soinean eramaten ditugun smartphoneak, tabletak eta abar benetako ordenagailuak dira. Datozen urteetan, informatika aldean eramateak, jantzita eramatera pasatuko gara, *wearable computing* deritzon joeraren bidez.

Wearable computing terminoak «jantzita eramateko informatika» esan nahi du. Ordenagailu berriok arropan bertan edo janzteko osagarri gisa (betaurrekoak, erlojuak...) eramango ditugu. Honezkero merkatuan dira horrelako zenbait gailu.

Betaurreko adimendunak

Betaurreko hauek mundu teknologikoaren arreta erakarri dute. Gailuak kristalean proiektatu ahal du une bakoitzean baliagarri izan dakigukeen informazioa (gure agenda, joan behar dugun tokira iristeko argibideak, egingo duen eguraldia...). Horretarako hainbat informazio-iturri erabiltzen ditu: adibidez, gure posizioa, orientazioa edo Interneteko konexioa.

Errealitate areagotua erakusteko ahalmena ere badute, hau da, kamerak hartzen duen irudiari buruzko informazio jakingarria eman diezagukete. Adibidez, monumentu bat seinalatu eta irudiaren gainean hura noiz eraikia den eta nork sortu duen azal diezagukete, besteak beste. Horrez gain, ahots bidez emandako aginduak bete ditzakete: e-mailak bidali, Interneten informazioa bilatu...

Honezkero, hainbat aplikazio garatu dituzte gailuon erabilgarritasuna erakusteko aldera. Horietako batek telemedikuntza garatzea ahalbidetzen du, ebakuntza bat egiten ari den mediku batek beste mediku baten argibideak jasotzeko aukera ematen baitu.

Pertsona gorrentzat eta itsuentzat ere diseinatu dituzte zenbait aplikazio. Horietako baten bitartez, betaurrekoek entzundako elkarrizketa bat testu bihurtzen du, pertsona gorrak betaurrekoetan irakur dezan. Beste aplikazio batek pertsona itsuei aukera ematen die testu baten aurrean jarri eta hori idatzita dagoena ahotsez entzun ahal izateko.

Smartwatch-ak

Erlojuak ere ordenagailu txikiak izateko bidean doaz. Aspaldi erabiltzen dira hainbat kirol-jardueratan erlojuak distantzia, abiadura eta abar neurtzeko, baina gero eta sentsoak, funtzioak eta ahalmen gehiago dituzte, eta *smartwatch* izena eman zaie, hau da, erloju adimendunak.

Hala ere, esan beharra dago telefono mugikorrera lotuta lortzen dutela ahalmen handiena. Beren funtzio nagusia da telefonora iristen zaigun informazioa eta oharrak bistaratzea, esaterako, posta elektronikoa, agenda, mezuak.... Eta, horretarako, bibragailua izan ohi dute, baina mezuoi erantzuteko mugikorrera jo behar da. Gehienek telefonoaren hainbat eginkizunen urruneko aginte gisa ere funtzionatzen dute, adibidez, musika-erreprouduzitailearena.



Soineko interfazeak

Bestalde, beren-beregi ordenagailuak izan gabe, haiekiko interfaze izateko funtzioa duten gailuak ere ari dira garatzen, soinean eramatekoak. Halakoak erabilia, gailu mugikor bat erabil dezakegu sakelatik edo poltsatik atera gabe. Adibidez, badaude eskularru batzuk hatz txikian mikrofonoa eta erpuruan bozgorailua dutenak, eta Bluetooth bidez mugikorrarekin konektatzen direnak. Informatika gure eguneroko bizitzan sartzen joan zaigu etengabe azken urteotan; laster, gure janzkera eta gorputzen parte izango da. Agian, modaren munduan ere gailu informatikoei markatuko dituzte joerak.

IGOR LETURIA
Zientzia.eus (Moldatua)



Testua aztertzen

Informazioa jaso

- 1 Aukeratu *wearable computing* terminoaren definizio zuzena.
 - a) Ordenagailuen bidez diseinatutako eta ekoiztutako arropari esaten zaio *wearable computing*.
 - b) Arropan edo jantzi ohi ditugun osagarrietan eramateko diseinatutako informatika-gailuei deritzegu.
 - c) Aldean eraman ohi ditugun Smartphone, tableta, e-book irakurgailu eta argazki-kamerei esaten zaie.
- 2 Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren.
 - Oraindik orain betaurreko adimendunak medikuntzaren esparruan baino ezin daitezke erabili.
 - Betaurreko adimendunei esker pertsona gorak idatziz jaso ahal izango ditu unean uneko elkarrizketak.
 - Errealitate areagotuaren bidez, ikusten ari garen monumentu eta eraikinei buruzko informazio jakingarria jaso dezakegu, betaurrekoen kristalean proiektatuta.
 - Betaurrekoek ez dute Internet konexiorik, eta horregatik ezin diogu jasotako e-mail bati erantzun.
 - Betaurreko adimendunek ez dute interes handirik sortu teknologiazaleen artean.
- 3 Erantzun galdera hauei.
 - Zertarako erabiltzen dira erloju adimendunak kirol-jardueretan?
 - Zein da *smartwatch* berrien funtzio nagusia?
 - Nola lortzen dute erlojuak bere ahalmenik handiena?
 - Zer dira soineko interfazeak? Zertarako dira?

Testua interpretatu

- 4 Testuan zehar zer-nolako informazioa ematen da?
 - Gertakariak.
 - Egilearen iritzia
 - Azalpenak

Testuaren egitura

- 5 Zer testu mota da irakurri duzuna? Argudiatu.
 - Azalpen-testua.
 - Albistea
 - Orientabideak
 - Iritzi-artikulua
- 6 Zenbat ataletan dago banatuta testua? Zer azaltzen da bakoitzean?

Hizkuntza-baliabideak

- 7 Bilatu testuaren lehen paragrafoan *aldean eraman* esamoldearen baliokidea eta adierazi zuk zer daramazun aldean.
- 8 *Tele-* aurrizkia grekotik dator eta *urrutiko* esan nahi du. Testuak *telemedikuntza* dakar, zer adierazten du? Eman adibide gehiago eta azaldu zer diren.

Hausnartu eta azaldu

- 9 Testuan aipatzen diren gailuak erabilgarriak direla uste al duzu? Zein gustatzen zaizu gehien?
- 10 Zertarako erabil litezke betaurreko adimendunak ikasgelan? Zer onura eta arazo ekar lezakete?



DEKLINABIDE-KASUAK

GRAMATIKALAK

NOR / NORI / NORK

LEKU-DENBORAZKOAK

NON / NONGO / NONDIK /
NORA / NORANTZ / NORAINO

GAINERAKOAK

ZERIK

NOREN

NORENGATIK

NORENTZAT

NOREKIN

ZEREZ / ZERTAZ

NORTZAT



Deklinabidea: gainerako kasuak

1 Zein dira gainerako deklinabide-kasuak?

Kasu gramatikal eta leku-denborazkoez gain, badira beste zenbait kasu ere. Halakoek ez dute komunztadurarik aditzean, ZERIK kasuak izan ezik.

1.1 ZERIK kasua

ZERIK kasua NOR kasuaren ordezkari erabiltzen dugu **ezeztapen eta galderetan**, baina esanahi ezberdinez. Mugagabeko forma du bakarrik eta komunztadura egiten du, singularrean beti:

ZERIK mugagabea **-(r)ik**

- *Ekarri duzu balo**irik**?* (edozein) / *Ekarri duzu baloia?* (utzi nizuna)
*Ez dut balo**irik** ekarri.* (bat ere ez) / *Ez dut baloia ekarri.* (utzi zenidana)

1.2 NOREN, NORENGATIK eta NORENTZAT kasuak

- NOREN kasua **jabetza** eta beste zenbait harreman mota adierazteko erabiltzen da:

NOREN singularra **-aren**; plurala **-en**; mugagabea **-(r)en**

- *Hango emakume**aren** aurpegia ezaguna egiten al zaizu?*
*Ikastetxeko zuzendariak ikasle**en** kexak onartu ditu.*
*Zenbait aberer**en** osasunagatik kezkatuta daude abeltzainak.*

Kasu hau hartzen duen izenaren ondoren beti beste izen bat doa. Izen horrek, era berean, NOREN kasua har dezake, eta ondoan beste izen bat. Horrela, amaigabeko kateak sor daitezke:

- *Nire ama**ren** nebare**en** aitare**en** ama, nire birramona da.*
*Aldapeko sagar**aren** adarr**aren** puntare**en** puntan txoria zegoen kantari.*

- NORENGATIK kasua ekintza baten **kausa edo arrazoia** markatzeko erabiltzen da:

NORENGATIK singularra **-a(ren)gatik**; plurala **-engatik**; mugagabea **-(r)engatik**

- *Semea**(ren)gatik** edozer egingo luke.*
*Zomorro**engatik** bota behar izan dute intsektizida.*
*Hainbat amodio**rengatik** galdu dut burua.*

- NORENTZAT kasuak ekintza baten **hartzailea** zein den adierazten du, honako atzizkien bidez:

NORENTZAT singularra **-arentzat**; plurala **-entzat**; mugagabea **-(r)entzat**

- *Tarta hau nire seme**arentzat** egin dut.*
*Ikusle gor**rentzat** antzeztuko dute gaur.*
*Opari hau bi adiskide**rentzat** erosi dut.*

1.3 NOREKIN kasua

Ekintza burutzeko noren/zeren **laguntza** dagoen adierazten du:

NOREKIN: singularra **-arekin** plurala **-ekin** mugagabea **-(r)ekin**

- Zure gelako lagun**arekin** egin zenuen lana, ezta?
- Haserre nago guraso**ekin**, ez didate festara joaten utzi!
- Milaka tututxo**ekin** eraiki du gazteluaren maketa.

1.4 ZEREZ/ZERTAZ kasua

Kasu honen bidez **bitartekoak** (tresna, gaia, bidea...) markatzen ditugu:

ZEREZ/ZERTAZ singularra **-az** plurala **-ez** mugagabea **-(e)z**

- Ezkerreko esku**az** eman dio pilotari. (tresna)
- Nire kontu**ez** hitz egiten ari naiz. (gaia)
- Itsaso**z** joan da uhartera. (bidea)

Galdetzaileek eta erakusleek **-ta-** artizkia hartzen dute:

- Horre**taz** ere hitz egingo dugu.
- Norre**taz** edo zerre**taz** ari zarete?

1.5 NORTZAT kasua

Kasu hau **rola edo esleitutako izaera** adierazteko erabiltzen dugu, eta forma bakarra du, mugagabea:

NORTZAT mugagabea **-tzat**

- Zintzo**tzat** daukagu geure burua, baina ba ote gara?
- Gurasoak hil zitzaizkionean seme**tzat** hartu zuten etxe hartan.

JAKIZU



NOREN kasuak eta horren gainean eraikitako NORENGatik eta NORENTzat kasuek **-n** galtzen dute *ni, hi, gu* eta *zu* izenordainekin:

- *nire, hire, gure, zure...*
- *nirengatik, hirengatik, gurengatik, zurengatik...*
- *niretzat, hiretzat, guretzat, zuretzat...*

ARIKETAK

1 Lotu galderak eta erantzunak:

- | | |
|-------------------------------------|------------------|
| Norekin irten zinen etxetik atzo? • | • Txokolatez. |
| Zerez eginak daude bonboiak? • | • Mirenentzat. |
| Noren arkatza da hau? • | • Zuzendaritzat. |
| Nortzat hartu zaituzte? • | • Nebarekin. |
| Norentzat idatzi duzu eskutitza? • | • Mikelena. |

2 Bete hutsuneak koadroko hitzak erabiliz:

alabez	txakurrarekin
armatzat	arrainentzat

- Epaietan ur pistola _____ jo dute.
- Harro-harro hitz egiten du bere _____.
- Zure _____ jolastea gogoko dut.
- Itsasoko _____ ur geza kaltegarria da.

3 Hautatu hitzen forma egokia:

- Etxean ez dugu txerrikirik/txerrikiak jaten.
- Gurasoez/Gurasoekin joan naiz oporretan.
- Haiek inozorentzat/inozotzat gauzkate!
- Alabaren/Alaba jaiotza ospatzen ari dira.

4 Osatu hitzak dagokien kasuaz. Adi, numeroa ere kontuan hartu behar duzu!

Atzo mendira joan nintzen nire lagun____. Ia atsedean____ hartu gabe egin genuen bidea, eta batzu____ esperientzia gogorra izan zen. Mendizale porrokatu____ naukate, baina ni ere nekatzen naiz. Kontua da nire anaia____ gomendioak jarraituz errazago dela: tarteka ura edatea, fruitu lehor____ eta txokolate____ egindako mokadutxo batzuk jatea...



ASPEKTUA

BURUTUA

margotu dut

BURUTUGABEA

margotzen dut

PUNTUKARIA

margotzen ari naiz

GEROKOA

margotuko dut

Aditza: aspektua

1 Zer da aditzaren aspektua?

Aspektua **ekintza burutua dagoen ala ez** esaten digun ezaugarria da. Aditz nagusiak ematen digu horren berri atzizki eta partikula batzuen bidez.

2 Zein dira? Zertarako?

2.1 Burutua

Aspektu honek **ekintza bukatu** dela esan nahi du. Aditz nagusia bere horretan jartzen da, nolanahi bukatzen dela ere. Gehienek **-tu** edo **-du** amaiera dute, eta beste askok **-i** edo **-n**.

► Irudi ikusgarriak **marratzu** dituzte grafitigileek.

Utzi zenidan liburua **ekarri** dut. / Bidaia ederra **izan** da.

- Badira bestelako amaierak ere, esate baterako **-o** (*igo, jaso, jo...*), **-ki** (*eduki, jaiki...*) eta abar (*atera, bota, erre, gorde, hil...*).

► Gaur berandu **jaiki** gara. / **Igo** duzu aulkia goiko solairura?

Goizean goiz **atera** naiz etxetik.

2.2 Burutugabea

Ekintza errepikatzen dela edo amaitzen ez dela adierazten du, **-tzen** eta **-ten** atzizkien bidez (gainera **-tu**, **-i** eta **-n** bukaerak dituzten aditzek hura galtzen dute).

► Eguzkia egunero **sartzen** da mendebaldetik.

Itsuek ez dute **ikusten**, baina entzumen ezin hobea dute.

- Aditz gehienek **-tzen** marka hartzen dute, eta **-ten** honakoek soilik: alde batetik, **-n** amaiera dutenek, eta, bestetik, **-tu** edo **-i** kenduz gero **-(t)z** eta **-(t)s** bukaerarekin geratzen direnek.

► egon → **egoten**, lokaztu → **lokazten**, hautsi → **hausten**

- **Ohitura** adierazteko, bada beste egitura berezi bat ere, forma burutuari **ohi** partikula gehituz osatzen dena:

► Egunero, ohituraz... honela egiten dut. = Honela **egin ohi** dut.

Beti, ohituraz... seietan esnatzen naiz. = ... **esnatu ohi** naiz.

2.3 Puntukaria

Aditz trinkoek adierazi ohi duten aspektua da. Forma trinkorik ez duten aditzek **-(t)zen** amaiera eta **ari izan** aditzaren bitartez adierazten dute **ekintza une horretan** gertatzen ari dela. Aditz nagusia zeinahi dela ere, laguntzailea beti **NOR** da.

► Hartu behar dugun trena Gasteiztik **dator**. / Zer **daramazu** buruan?

Ur hotzez **dutxatzen ari** zara? / Azterketarako **ikasten ari** naiz. (Egunero **ikasten** dut)



2.4 Gerokoa

Ekintza hasteko dagoela esateko erabiltzen dugu. Aspektu burutuari -ko gehiturik (eta -n amaiera dutenei -go).

- ▶ *Ez naiz film hau ikusteaz sekula aspertuko, itzela da!*
Jaialdia datorren astean izango da.
Noiz jasoko dituzu traste horiek?

3 Aditz-lokuzioen aspektua

Badira **zenbait aditz-lokuzio** aspektua adierazteko modu berezia dutenak. Aditz-lokuzio horiek "izena + izan aditza" egitura dute, eta horrelakoak dira *behar izan*, *bizi izan*, *nahi izan* edo *maite izan*, besteak beste.

- Aspektu burutua adierazteko lokuzio osoa jartzen da:
 - ▶ *Laguntza eskatu **behar izan** dut, ezin nuen bakarrik egin.*
*Txikitatik **bizi izan** da bertan, baina joatea erabaki du.*
- Burutugabeen, berriz, lokuzioko aditzari -ten gehitzen zaio:
 - ▶ *Egunean hiruzpalau aldiz joan **behar izaten** dut komunera!*
*Izurdeak 30-40 urtez **bizi izaten** dira, batez beste.*
- Puntukarirako, ordea, *izan* ezabatzen da:
 - ▶ *Entsaladarako olio gehiago **behar** dut.*
*Orain Bilbon **bizi** naiz, baina Barakaldokoa naiz jaiotzez.*
- Eta gerokoa adierazteko bi modu daude, aditzari -go gehitzea (*izango*) edo aditza kendu eta -ko izenari eranstea:
 - ▶ *Bihar brotxa berria **behar izango** dut margotzen jarraitzeko.*
*Datorren urtean erosoago **biziko** naiz soldata hobeaz.*

JAKIZU



Eguraldiarekin lotutako esapide batzuek ez dute Nor laguntzailea hartzen aspektu puntukarian, NORK baizik.

- *Euria ari du.* (*Euria ari da.)
- *Elurra ari du.* (*Elurra ari da.)

ARIKETAK

1 Bete hutsuneak koadroko aditzak erabiliz.

egingo	kontatzen	ari
bukatzen	apurtu	eroriko

- Barkatu! Hire bideo-jokoa _____ zaidak!
- Ez ibili horrela patinetean, azkenean _____ zara!
- Itxaron apur bat, berehala _____ dut hori.
- Zer ordutan _____ duzue entrenamendua?
- Mikel berari gertatu zitzaiona _____ da.

2 Hauta ezazu esaldi bakoitzeko forma egokia.

- Lagunok, *joaten/joango* gara zinemara?
- Egunero *amesten ari/amesten* dut gauza bera.
- Azkenean, ez zinen *etorri/etorriko* bilerara.
- Bidegorri berria egiten *ari dute/ari dira*.
- Ikasleek greba egitea *ados/adostu* dute.

3 Lotu bi zutabeetako esaldi zatiak.

- | | | |
|-----------------------------------|---|-------------------|
| Geroxeago delitu, orain dutxa bat | • | • eramango dut. |
| Berandu zuela-eta | • | • hartzen ari da. |
| Badaezpada ere, aterkia | • | • hartzen dut. |
| Gosaritan, katilu bete esne | • | • sortu zen. |
| Atzo denon artean giro ona | • | • iratzarri nuen. |

4 Jarri aditz nagusiak dagokien aspektuan.

- Noiz _____ da urtero ikasturtea? (hasi, burutugabe)
- Autoa _____ zitzaionez berandu iritsi zen. (matxuratu, burutu)
- Herriko iturritik _____ dugu ura. (hartu, burutugabe)
- Bazkaria _____ naiz. (prestatu, puntukari)
- Iluntzeko zortziak aldera _____ dugu. (afaldu, ohitura)
- Beti _____ zaitut amona! (maite izan, gero)

➔ EGITEN JAKIN



Banaka eta elkarlanean: Inkesta



Sare sozialek gure lagun eta ikaskideekin elkartzeko topagune bat eskaintzen digute, bai eta harremanetan dauden pertsonen artean gogoko suertatzen zaizkigun edukiak banatzeko ere. Horrela, sarean testu, argazki edo bideo interesgarriren bat topatzen badugu, sare sozialera bidali eta gure lagun guztiek ikusteko aukera dute.

Sare sozialek geure edukiak sarreratzeko ere balio dute, sortu ditugun argazki eta bideoak lagunei erakutsi ahal izateko. Gainera, lagunak iritziak idazteko aukera ere badute, guztion artean elkarriketa bat sortuz.

1 Egin ikasgelan sare sozialen erabilerari buruzko inkesta. Kontuan izan puntu hauek.

- Inkesta anonimoa izango da. Ez idatzi zure izenik.
- Erantzun ahalik eta modu zintzoenean. Inork ere ez du jakingo zure erantzunak zein diren.

1. Erabiltzen al dituzu sare sozialak?

- a) Bai.
- b) Ez.

2. Zein sare sozial erabiltzen dituzu, baten bat erabiltzen baldin baduzu?

- a) Whatsapp.
- b) Facebook.
- c) Tuenti.
- d) Instagram.
- e) Beste bat.

3. Zenbat denbora egiten duzu egunean sare sozialetan?

- a) Ordu bat baino gutxiago.
- b) 1-2 ordu.
- c) 2-4 ordu.
- d) 4-6 ordu.
- e) Ez ditut erabiltzen.

4. Uste duzu sare sozialak ezinbestekoak direla zure bizitzan?

- a) Bai.
- b) Ez.

5. Pertsona batekin harremanetan jartzeko, zein bide erabiltzen duzu?

- a) Sare sozialak.
- b) Bat-bateko mezularitza.
- c) Telefono-deia.
- d) Posta elektronikoa.
- e) Aurrez aurreko harremana.

6. Erabiltzen al duzu euskara sare sozialetan dituzun harremanetan?

- a) Bai, gehienetan.
- b) Bai, batzuetan.
- c) Gutxitan.
- d) Ez dut erabiltzen.



2 Bildu inkesta guztiak eta, irakaslearen laguntzaz, osatu inkestaren emaitzak grafiko bidez.

- Saikatu emaitzak galderen arabera.
- Kalkulatu galdera bakoitzak jasotako erantzunen ehunekoak.
- Ehunekoen arabera, sortu grafikoak.



3 LAN KOOPERATIBOA. Taldeka, aztertu emaitzak eta atera ondorioak. Sare sozialetan bazabiltzate, nolako erabilera egiten diezue?

ENTZUTEKO TESTUA

Tabletak, mugikorrak eta nerabeak

Telefono mugikorrak eta tabletak dira gailu elektroniko gogokoenak gazte eta nerabeen artean. Guraso askok galdetzen dute: «Zertarako behar du 12 urteko gazte-txo batek telefono mugikorra? Zer egiten du 8 urteko batek tabletarekin?

Batzuetan ez dute ulertzen garaiak aldatu egin direla eta aisia gaur egun beste era batera disfrutatzen dela. Eta telefonoen erabilera nagusia ez dela egun deiak egitea!

Orain, galdera: beti jokatzeko al dugu zentzuz gailu hauek esku artean ditugunean?



- ★ 1 Entzun *Tabletak, mugikorrak eta nerabeak* testua, eta erantzun galderei.
 - Zer hiru gauza eskaintzen dizkigute gailu horiek?
 - Nola sor daitezke arazoak?
 - Zer baldintza izan behar dugu beti argi?
- ★ 2 Eztabaidatu denon artean hiru puntu hauei buruz.
 - Argazkiak eta bideoak partekatzeari buruz.
 - Aplikazioak deskargatzeari buruz.
 - Eduki desegokietan sartzei buruz.
- ★ 3 Ados al zaude gurasoekin gailu horien erabilera adostu beharraz? Zergatik?




Entzun ahala



- Idatzi, entzun ahala, ideia interesgarrienak.
- Hamar arau aipatuko ditu testuak. Erabili hitz gako bat arau bakoitza izendatzeko. Horrela, hobeto gogoratuko dituzu.

EGITEN JAKIN



BAT-BATEKO MEZUA

Berriketa-taldea sortzea

- ★ 1 Bat-bateko mezularitza zerbitzu batean (Whatsapp, Hang Outs...) berriketa-talde bat sortu behar duzu.
 - Lehenik, aukeratu gaia: ibilaldi bat antolatzea, ikasgelako lan bat egitea, ikastetxearekin zerikusia duen zerbait antolatzea...
 - Ondoren, pentsatu nor gonbidatuko duzun berriketa-taldera. Aukeratu duzun gaiarekiko interesa izan dezakeen jendea aukeratu behar duzu.
 - Azkenik, idatzi berriketa-taldearentzat izenburua eta hasierako testua, zure asmoa garbi gera dadin.

Zailtasun-atzizkiak



1 Zailtasun-atzizkiak

Euskaraz, ekintza bat gertatzeko aukera, zailtasuna edo ezintasuna adierazteko lau atzizki ditugu: **-garri**, **-erraz**, **-gaitz** eta **-ezin**. Atzizki horiek aditzen erroei, hau da, aditzoinei (*ikus(i)*, *jan*, *sal(du)*...) lotzen zaizkie.



ZAILTASUN-ATZIZKIAK	ADIBIDEAK
-garri/-karri : egingarritasuna adierazten du, hau da, aditzaren ekintza gerta daitekeela. Beste bi adiera ditu: <i>barregarri</i> (barrea eragiten duena) eta <i>aipagarri</i> (aipatzea merezi duena).	<i>uler(tu)</i> + -garri : <i>ulergarri</i> <i>erabil(i)</i> + -garri : <i>erabilgarri</i> <i>zenba(tu)</i> + -garri : <i>zenbakarri</i>
-(t)erraz : erraztasuna adierazten du, hau da, aditzaren ekintza erraz gerta daitekeela. Zenbait aditzek -terraz aldaera hartzen dute.	<i>uler(tu)</i> + -terraz : <i>ulerterraz</i> <i>erabil(i)</i> + -erraz : <i>erabilerraz</i> egin + -erraz : <i>eginerraz</i>
-gaitz/-kaitz : zailtasuna adierazten du, hau da, aditzaren ekintza nekez gerta daitekeela. Zenbait aditzek -kaitz aldaera hartzen dute.	<i>uler(tu)</i> + -gaitz : <i>ulergaitz</i> <i>erabil(i)</i> + -gaitz : <i>erabilgaitz</i> <i>zenba(tu)</i> + -kaitz : <i>zenbakaitz</i>
-(t)ezin : ezintasuna adierazten du, hau da, aditzaren ekintza ezin gerta daitekeela. Zenbait aditzek -tezin aldaera hartzen dute.	<i>uler(tu)</i> + -tezin : <i>ulertezin</i> <i>erabil(i)</i> + -ezin : <i>erabilezin</i> egin + -ezin : <i>egin ezin</i>

ARIKETAK

1 Osatu esaldiak hitz hauekin:

jasanezina aurkigaitza ulerterraza eramangarria

- Ale gutxi argitaratu dituzte; komiki hori da.
- Aizu, Markel, idatzi argiago, zure gutuna ez da .
- Gaurko eguraldia da; beroegi dago.
- Ordenagailu erosi dut, edozein lekutan erabiltzeko.

2 Irakurri definizioak eta idatzi dagokien hitza **-garri**, **-erraz**, **-gaitz** eta **-ezin** atzizkiak erabiliz.

- Ikusteko erraza:
- Konformatzeko zaila:
- Erabili ahal dena:
- Amaitzeko ezinezkoa:
- Beldurra ematen duena:

3 Eman hitz hauen kontrako esanahia dutenak, atzizkiak erabiliz.

- zenbakarri → *zenbaezin*
- eramanerraz →
- sinesgarri →
- ikasgaitz →
- onartezin →
- egingaitz →

4 Berridatzi esaldiak hitz hauek erabiliz. Kontuan izan esaldietan zenbait aldaketa egin beharko dituzula.

eskuragarri aspergarri txalogarri

- Itzali telebista, saio horrek **aspartu** egiten nau!
- Antzezlan ederra da, **txaloak** merezi ditu.
- Liburu hori liburutegian dago **denon** eskura.

5 Osatu testuko hutsuneak aditzei atzizki egokia erantsiz:



Jakingarria!

Edison asmatzaile neka izan zen. Sines bada ere, oraindik erabil diren tresnak asmatu zituen.

Harri da, baina hasieran ez zuen arrakastarik izan. Fonografoa asmatu zuenean dena aldatu zen. Geroago patentatu zituen bonbilla, zinema-kamara... Hala ere, aipa da gaur egun zalantzan jartzen dela asmakuntza guzti-guzti haiek Edisonek egin zituela.



Puntuazio-markak (II)

1 Koma

Komak esaldi baten barruan gertatzen den **eten laburra** adierazten du.



KOMAREN ERABILERA	ADIBIDEAK
Zerrenda bateko osagaien artean. Ez ordea, eta edo eta ala daudenean.	<i>Hor dituzu margoak, papera, borragoma, arkatza...</i>
Mendeko perpausen artean	<i>Nahi baduzu, lagunduko dizut.</i>
Esaldi bat osatzeko txertatzen diren aposizioak edo esaldiak koma artean doaz.	<i>Maule, Zuberoako hiriburua, hiri txikia eta ederra da.</i>
Norbaiti deitzeko orduan, izena koma artean doa.	<i>Aizu, Josu, zertan zabilta?</i>
Zenbait lokailu (<i>gainera, adibidez...</i>) koma artean edo koma atzean edo aurrean dutela idazten dira:	<i>Edonork egin ahal du lantxo hori, adibidez, Jonek.</i>

2 Puntu eta koma

Puntu eta komak koma soilak baino **eten luzeagoa** adierazten du.



PUNTU ETA KOMAREN ERABILERA	ADIBIDEAK
Bi esaldiren arteko lotura oso estu dela adierazteko.	<i>Ni lotara noa; beranduegi da.</i>
Zenbait lokailu (<i>beraz, izan ere...</i>) esaldien artean txertatzeko.	<i>Pozoitsua da; beraz, ez ukitu landare hori.</i>
Zerrendetako informazioa multzotan bereizteko.	<i>Apalean ditut: komikiak, Anek utzitakoak; eta CDak, zuk ekarriak.</i>

JAKIZU



Puntuazio-markek esaldien zentzua alda dezakete; beraz, kontuz ibili behar dugu eta behar direnean eta behar diren tokian jarri behar ditugu.

- *Pozik nago gaur, etorri zarelako.*
- *Pozik nago, gaur etorri zarelako.*

ARIKETAK

1 Kopiatu esaldi hauek koadernoan, komak behar diren tokietan jarrita.

- Aizue neska-mutilak bihar etorriko zarete ezta?
- Laguntzen badiogu lehenago bukatuko du.
- Horra goaz denok: Ane Iker Maider Jone eta bostok.
- Gaixotu da baina ez da oso larria behintzat
- Gaizka gure maisu berria ez da inoiz haserretzen.

2 Jarri komak esaera zahar hauetan.

Nolako zura halako ezpala.

Katurik ez dagoen etxean saguak dantzan.

Geroa alferraren leloa

3 Lotu zatiak eta kopiatu esaldiak koadernoan osorik.

- | | |
|--------------------|--------------------------------|
| Isil-isilik dago; | • autobusa galdu dugu. |
| Ospetsua da; | • beraz, ez daki ezer. |
| Berandu da; | • poz-pozik nago. |
| Gainditu egin dut; | • izan ere, errekor asko ditu. |

4 Kopiatu esaldi hauek koadernoan, komak eta puntu eta komak behar diren tokietan jarrita.

- Lagunak ziren horregatik jaira gonbidatu zuen.
- Nik Maite Urbek izena eman nahi dut lehiaketan.
- Andoni hemen duzu dena: bazkaria amak prestatua arropak udakoak zein negukoak liburuak eta komikiak.
- Guk bukatu dugu zuek berriz oraindik ez.

Argibide-orria

Argibide-orria gai bati buruzko azalpen objektiboa ematen duen testu mota da. Helburua **informazioa** ematea da eta horretarako, azalpenak, zerbait egiteko jarraibideak, aholkuak eta bestelako testu txikiak bildu ahal ditu barnean. Testu mota honetakoak dira, adibidez, tresna baten funtzionamendua nolakoa den azaltzen duten orriak edota bidaia-proposamen baten nondik norakoak aurkezten dituztenak.

Testuak argia izan behar du. Horretarako, azalpenetako esaldi laburrak eta zailtasunik gabeak izan ohi dira. Ematen den informazioak hiru ezaugarri bete behar ditu: **objektibotasuna**, **zehaztasuna** eta **ordena**. Erabiltzen den hiztegia ez da oso teknikoa izaten, baina bai zehatza. Aditz-denborari dagokionez, orainaldia erabiltzen da gehienetan.

Flyboard-a, kirol tresna berria



Flyboard-a Franky Zapata frantziarrak 2011ko udaberrian asmatutako kirol tresna berria da. Hainbat eredu garatu eta gero, ur mailaren gainetik egonkorki hegan egiteko taula sortu zuen.

2012an Txinan egin zen Munduko Txapelketan aurkeztu zuen jendaurrean.

Kirol berria probatu nahi dutenentzat

Flyboard-a ibil dadin, uretako motoaren atzealdean lotzen da bere hodia. Hori prest egon bezain laster, Flyboard-ak itsas mailaren gainetik hegan egiteko ez ezik, ur azpian itzulipurdika ibiltzeko ere balio du.

Lehenik, botak jantzi behar dira. Izan ere, boten azpitik ur txorrota indartsua ateratzen da. Ondoren, eskuen altueran dauden mandoak ongi heldu behar dira, oreka mantentzeko balio baitute.



Osagaiak

1. Oinen azpian jartzen den taula
2. Uretarako botak
3. Bi mando
4. Hodi bat
5. Uretako moto bat

Gogoan izan!

✓ Mandoak errazago eta egokiago erabiltzeko komeni da pentsatzea eski-makilen modukoak direla. Horrez gain, altuerei beldur diotenei behera begiratu beharrean aurrean dutenari so egitea gomendatzen zaie.

✓ Flyboard-arekin itsas mailatik hamabi metrotara egin daiteke hegan eta, diotenez, probatu dutenen % 95ak hamabost minutu besterik ez du behar izan airean hegan egoteko. Beraz, hartu arnasa aireratu baino lehen.

Testutik abiatuta



- 1 Lotu zutabeak. Alde batean, argibide-orrien zenbait ezaugarri daude; bestean, adibideak.

Informazioa era ordenatuan ematen da, denbora-lokailuen bidez.

Aditza orainaldian egon ohi da.

Azalpenez gain, gomendioak edo aholkuak ematen dira.

- «Flyboard-a ibil dadin, uretako motoaren atzealdean lotzen da bere hodia».
- «Lehenik, botak jantzi behar dira».
- «Mandoak errazago eta egokiago erabiltzeko komeni da pentsatzea eskimakilen modukoak direla».

- 2 Adierazi ondoko zerrendatik aholkuak direnak.

- Flyboard-a Franky Zapatak asmatu zuen.
- Hartu arnasa aireratu baino lehen.
- Flyboard-arekin hamabi metroko altuera har daiteke.
- Altueri beldur diotenei aurrean dutenari so egitea gomendatzen zaie.



- 3 Esan testuko atal bakoitzean zein informazio ematen den:


Sarrera	
Kirol berria probatu nahi dutenentzat	
Osagaiak	
Gogoan izan!	



- 4 Sailkatu *Skysurf*-ari buruzko informazioa lau multzotan: sarrera, azalpena, osagaiak eta aholkuak.

- Aireko surflariak akrobaziak ere egin ditzake, baina horretarako saio asko egitea gomendatzen da, ez baita lan erraza.
- Oinetara lotzen den taula bat, jausgailu bat eta hegazkin bat behar dira.
- Skysurf-a egiteko hegazkin batekin zeruraino igo eta bertatik salto egiten du aireko surflariak. Ondoren, oreka mantentzen saiatu behar du, izan ere, taula gainean doanak praktika handia behar du gorputza zuzen mantentzeko.
- Kirol hau bi frantziarrek asmatu zuten 1986an eta urte batzuk geroago egin zen ezagun.

Idazteari ekin



- 5 Idatzi argibide-orri bat *Skysurf*-ari buruz, aurreko informazioa baliatuz eta ondorengo pausoak jarraituz:

- Idatzi atal bakoitzerako izenburu egoki bat.
- Erabili lokailuak informazioa modu ordenatuan emateko: *lehenik, horren ostean, amaitzeko...*
- Egin osagaietarako atal berezi bat, esanez zer tresna behar den kirol honetarako.
- Eman aholku pare bat amaieran.



Bat-bateko bertsoa

Neurria

Errima

Doinua

Bat-bateko bertsolaritza

Bertsoa, kirola?

Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra zer kirol mota
den bertsolaritza.

XABIER AMURIZA



1 Bat-bateko bertsolaritza zer den

Bertsolaritza, gaur egun, bat-bateko inprobisazio kantatuarekin lotzen dugu batez ere. Bat-batean ari delarik, bertsolariak, gai bati jarraituz, kantatzeko unean bertan sortzen du bertsoa.

Nahiz eta, oro har, bertsolaritza inprobisatuz egiten den jarduna izan, oso arau zehatzak ditu.

Bertsolariak binaka aritzen dira gehienetan. Bertsoak txandaka botatzen dituzte, elkarri erantzunez.

Librean ari direnean, bertsolariek erabakitzen dute zeri buruz kantatu. Beste batzuetan, aurrez gaia emanda inprobisatzen dute, hau da, gai-jar-tzaile batek gai bat proposatzen die eta bertsolariek gai horri buruz inprobisatzen dute.

2 Bertsoaren ezaugarriak

Bertsolariak hiru ardatz ditu bertsoa osatzeko: neurria, errima eta doinua.



- **Neurria.** Hainbat bertso neurri daude. Bertso mota bakoitzak bertsole-rrero kopuru jakina du, eta bertsolerro bakoitzak, silaba kopuru jakina.

Bertsolariek gehien erabiltzen dituzten neurriak zortziko handia, zortziko txikia, hamarreko handia eta hamarreko txikia dira.

Zortziko handia

Munduko zenbat bazter gordetan (10)
ez edari ta ez jangai! (8)
Eta bizitza kostata baina (10)
aurrerantza eraman nahi (8)
eta haiekin konparatuta (10)
nik sarri pentsatzen dut ai! (8)
Gu aberatsak garela baina (10)
oso behartsu ere bai. (8)

AMETS ARZALLUS

Zortziko txikia

Orain esan zaidazu (7)
ez nauzula maite! (6)
Gauzak ez dira izan (7)
horrela gaur arte. (6)
Bota nahi ote nauzu (7)
etxetik aparte? (6)
Zure katu begiek (7)
ikarutzen naute. (6)

MAIALEN LUJANBIO

JAKIZU



Bertsolaritzaren historia

Bertsolaritza ahozko literaturako jarduna da, eta beraz, antzinako garaietan du jatorria. Erdi Aroan, emakume bertsolariek koplado profazadak kantatzen zituztela badakigu. Bertsolariei buruzko hurrengo albisteak Fernando Amezketarra ezagunaren garaioak –XVIII. mendearen bukaerakoak– dira. Harrezkero, nahiko ondo ezagutzen da bertsolaritzaren historia: bertsoak, bertsolarien izenak, txapelketak...

- **Errima.** Hitzen arteko hoskidetasunak sortzen du errima. Bertso bateko hitz hoskide edo errimadunak bertsoko oinak dira. Adibidez, errimatzen dute *lana, jana, ama* hitzek edo *herri, irri, berri* hitzek. Errimatik errimara doan esaldia –bi bertsolerro– **puntua** da. Hala, zortziko handi nahiz txikiko bertsoek lau puntu dituzte.

1. **puntua:** *Munduko zenbat bazter gordetan
ez edari ta ez **jangai!***

2. **puntua:** *Eta bizitza kostata baina
aurrerantza eraman **nahi***

3. **puntua:** *eta haiekin konparatuta
nik sarri pentsatzen dut **ai!***

4. **puntua:** *Gu aberatsak garela baina
oso behartsu ere **bai.***

- **Doinua.** Bertsolaria musika-tresnarik gabe ari da, kantu hutsez. Erabiltzen dituen doinuak gehienetan tradizioetik datozenak dira, egile jakinik gabeko doinuak.

Azken urteotan, bertsolariek berek edo musikarien laguntzarekin, doinu berriak sartu dituzte plazako bertsogintzan.

Neurri bakoitzak bere doinu multzoa du, baina ugarienak zortziko handikoak eta zortziko txikiko doinuak dira.



Bat-bateko bertsoaren hiru zutabe formal nagusiak hiru dira: **neurria, errima eta doinua.**

ARIKETAK

- 1 Esan esaldi hauek egia ala gezurra diren.

- Bertsolaria kantatzeko unean bertan sortzen ari da bertsoa.
- Bertsolariei beti jartzen diete gai bat, hari buruz kanta dezaten.
- Puntu bakoitzeko lehen hitzari *oina* esaten zaio.

- 2 Irakurri beheko bertsoa eta esan zein neurritakoa den eta zein diren errimatzen duten hitzak.

Ni naiz neska zintzoa
ikasle formala
baina euskaraz ez dakit
da gauza normala;
baina adierazi
nahi nizuke hala:
nola esan nezake
maite zaitudala?

MADDALÉN ARZALLUS



- 3 Azaldu zein diren bat-bateko bertsoaren hiru zutabe nagusiak eta haien ezaugarriak.

- 4 Bete bertsoko hutsuneak lau oin aukeratuz.

- | | | |
|-------------|--------|---------|
| • hitz egin | • arin | • jakin |
| • alde egin | • min | • ezin |

Oi, baserritxo

Oi, baserritxo, hartuko dezu
bihotz barrenetikan _____,
eskerrak mihirik ez dezun eta
ezin dezun gaur _____;
zenbat familia hazi dituzun
Jainkoak bakarrik _____,
orain bakarrik uzten zaituzte,
ondotik danak _____.

LAZKAO TXIKI

Vietnamgo txerria

Gaia: Maialen Lujanbiok aspaldian bazuen kapritxo bat: maskota bat izatea, animalia bat; eta azkenean lortu du, Unai Iturriaga da maskota hori.

1) M. Lujanbio:

Beiratu ta egiten zait
bihotza bi zati
hain eder du buru gain
eta sabel azpi!
Vietnamgo txerritxo
beltz-beltza izaki
baina katearekin
ibiltzen ez daki. (bis)

2) U. Iturriaga:

Honegaz errenditzen
badeukot nahiko lan
ondo tratatu gura
baina ez daki zelan.
Txerri izen ta txakur
lez nindun eraman
ta ez dakit «Kurrin!» edo
«Uau!» egin behar dan. (bis)

3) M. Lujanbio:

Kate barruan ez da
egoki kabitzen
baina ni saiatzen naiz
arretaz aditzen
bera hots arraro batzuk
ari da erditzen
baina nik vietnamera
ez det entenditzen. (bis)

4) U. Iturriaga:

Harreman hau behar da
gaur kolpera eten
ez bada arazoa
ondo eroaten.
Euskaraz eta garbi
nabilzu esaten
nik patata azalik
ez dodala jaten. (bis)

ARIKETAK

1 Erantzun galderei.

- Zer maskota mota du Lujanbiok?
- Zer ez daki egiten maskotak?
- Zer beste animalia bezala tratatzen du jabeak maskota?
- Zer erantzun dio maskotak jabeari azken bertsioan?

2 Identifikatu bertsoetan errima duten hitzak. Ondoren, adierazi azpiko hitzak zein bertsoekin lotuko zenituzkeen.

- | | |
|-----------|------------|
| • gelan | • ematen |
| • aritzen | • ibiltzen |
| • jaten | • irrati |
| • ebaki | • eman |



➔ EGITEN JAKIN

Bertsoen neurria identifikatzea

Uso zuri bat

Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez,
alaitasuna hartxek sortu dit,
jaun maiteak, bere hitzez;
eta ni orain zuen aurrean
nauzue pozaren pozez.
Lehendabiziko, entzule onak:
agur danori bihotzez!

BASARRI

Begetarianoarena

Haragia kanpora
ta berdurak arau
neri iruditzen zait
ia-ia barau.
Luze segi ezkero
gure joera hau
osasunak ez baino
tristurak hilko nau!

UNAI AGIRRE

Ondean dituzun bi bertsoak une eta egoera desberdinetan kantatu ziren.




1 Adierazi zein neurritakoak diren goiko bertsoak.

- Zenbatu bertsolerroak.
- Zenbatu bertsolerro bakoitzean dau-dan silabak.



2 Azaldu zeure hitzekin zeri buruz ari den kantatzen bertsolari bakoitza.

GRAMATIKA. Deklinabidea: gainerako kasuak. Aditzaren aspektua



Kasu gramatikal eta leku-denborazkoez gain, badira euskaraz beste deklinabide-kasu hauek ere:


- **Zerik** kasua ezeztapenetan eta galderetan erabiliko dugu.
- **Noren, Norengatik** eta **Norentzat** kasuek jabetza, ekintza baten arrazoia eta hartzaila adierazten dituzte.
- **Zerez/Zertaz** kasuen bidez bitartekoak markatzen ditugu.
- **Nortzat** kasuak rola edo esleitutako izaera adierazten digu.

Bestalde, aditzaz ari garela, haren **aspektua** ekintza **burutua dagoen ala ez** esaten digun ezaugarria da. Aditz nagusiak ematen digu horren berri hartzen duen formaren arabera.

Aspektu **burutuak** ekintza bukatu dela esan nahi du. **Burutugabeak** ekintza errepikatzen dela edo ez dela amaitzen adierazten du. **Gerokoa** erabiltzen dugu ekintza hasteko dagoela esateko.

Aditz trinkoen aspektua, berriz, **puntukaria** da, eta ekintza une horretan gertatzen ari dela adierazten du. Zenbait aditzek ez dute forma trinkorik eta *ari izan* aditzarekin erabiltzen dira.

TESTU TIPOLOGIA. Argibide-orria



Argibide-orria gai bati buruzko **azalpen objektiboa** ematen duen **testua** da. Informazioa ematea du helburu eta hainbat testu txiki bildu ahal ditu barnean. Testuok hainbat motatakoak izan daitezke: **azalpenak, jarraibideak, aholkuak...**

Testuak **argia izan behar du**; esaldi laburrak eta zailtasunik gabeak erabiltzen dira. Emandako informazioa **objektiboa, zehatza** eta **ordenatua** izan behar da. Erabiltzen den hiztegia ez da oso teknikoa izaten, baina bai zehatza. Aditz-denborari dagokionez, **orainaldia** erabili ohi da.

LITERATURA. Bat-bateko bertsolaritza



Bertsolaritza **bat-bateko inprobisazio kantatuarekin** lotuta dago. Bertsolariak, bat-batean ari delarik, librean nahiz gai jakin bati jarraituz, kantatzeko unean bertan sortzen du bertsoa. Hiru zutabe nagusi ditu bertsoak:

- **Neurria**: Neurri erabilienak zortziko handia, zortziko txikia, hamarreko handia eta hamarreko txikia dira.
- **Errima**: Hitzen arteko hoskidetasunak sortzen du.
- **Doinua**: Gehienetan tradizioz datozenak erabili ohi dira.

IRAKURMENA

1 Irakurri ondoko testua eta erantzun galderei.



Adimenaren indarra

Municheko zientzialari talde batek hegazkin-pilotuentzako txano berritzailea diseinatu du. Txanoak hegazkina adimena erabiliz pilotatzea ahalbidetzen du, hau da, eskuzko aginteak erabiltzeko beharrik gabe eta ahozko agindurik eman gabe. Txanoak gidariaren burmuineko bulkada elektrikoak neurtzen ditu hainbat elektrodoren bidez eta bulkada horiek interpretatu egiten ditu hegazkinari aginduak emateko. Txanoa hainbat gidarirekin probatu zuten. Emaitzak onak izan ziren, eta harrigarria bada ere, hegazkinak gidatzen ez zekitenak ere gai izan ziren simulagailuan hegazkina helmugaraino eramateko. Adituen esanetan, txanoak askatasuna emango die pilotuei, eskuak libre izango dituztelako beste eginkizunetarako. Beste aldetik, hegazkinak gidatzea errazagoa izango da, eta etorkizunean jende gehiagoren esku egongo da.

Orain arte medikuntzan erabili izan da txanoa, baina beste hainbat esparrutan ere oso erabilgarria izan daiteke.



- Zerk bereizten du Munichen diseinutako txanoa ohiko txanoetatik? Zer ahalbidetzen du txano berritzaileak?
- Zein da txanoaren funtzionamendua? Nola dabil?
- Zer abantaila dakartzio txanoak hegazkin pilotuari? Eta hegazkingintzari?
- Zein esparrutan erabili izan dira halako txanoak orain arte?

GRAMATIKA

2 Hautatu hitz deklinatu egokia.

- Ez diot *beldurra/beldurrik* iluntasunari.
- Everest da munduko *mendien/mendirik* altuena.
- Uharteraino *itsasontziz/itsasontziaz* baino ezin da heldu.
- Hainbat *arrazoiengatik/arrazoiagatik* haserretu naiz.
- Askok *kiroltzat/kirolatzat* jotzen dute xakea.

3 Osatu perpausak hitz egokiak aukeratuta.

zutaz / kideren / kontuez / buruz / norentzat

- prestatu duzue horrenbeste janari?
- Txikitako ari gara hitz egiten.
- oroitu nintzen asteburuan, zure herri*rik* igarotzean.
- ikasi dut erakutsi zenidan abestia.
- Hainbat artean sortu dugu taldea.

4 Lotu denborazko adberbioak eta aspektu ezberdindun perpausak.

Gaur goizean... • ... objektu hegalaria bat ikus genuen.

Oraintxe... • ... lagunekin joango naiz oporretan.

Datorren urtean... • ... txantxangorri bat sartu zait gelan.

Sarritan... • ... ariketa hau egiten ari naiz.

Bart gauean... • ... otsoen uluak entzun ohi ditut.

5 Jarri aditz nagusiak dagokien aspektuan.

- Nork du nire bizikleta? (hartu, burutua).
- Okindegi horretan oso ogi gozoa (egin, burutugabea).
- Eguzki honekin nire izozkia (urtu, puntukaria).
- Mende honetan itsas mailak gora (egin, gerokoa).
- Egunero, goizeko zazpitan (gosaldu, ohitura).

LEXIKOA

6 Osatu esaldiak zailtasun-atzizkidun hitz egokiak aukeratuta.

ulergaitza

ahaztezina

ikusgarria

irakurterraza

- Eguraldi honekin hondartzara joan nahi ez izatea da.
- A zer gola sartu duen! benetan!
- Gaur bukatuko dut liburu hau; izan ere, da oso.
- Egingo dugun bidaia izango da!

7 Lotu hitzak dagozkien definizioekin.

- | | |
|-----------------|--------------------------|
| Irakurterraza • | Harridura sortzen duena. |
| Harrigarria • | Eraman daitekeena. |
| Eramangarria • | Amaierarik ez duena. |
| Amaiezina • | Ulertzen zaila dena. |
| Ulergaitza • | Irakurtzen erraza dena. |

ORTOGRAFIA

8 Idatzi koma (,) edota puntu eta koma (;) hala dagokion tokian.

- Nekatuta nago beraz lotara joango naiz.
- Nik jaka gorria daukat zuk ordea beltza.
- Menuan zopa entsalada haragia eta arraina daude.
- Jaialdia gaur bihar etzi eta etzidamu ospatuko da.
- Gaur eguraldi ona dugu bihar aldiz euria egingo du.

9 Zuzendu esaldi hauen puntuazio-markak.

- laz; ile laburra nuen, aurren; ordea luzea.
- Bizkaian; bizkaieraz hitz egiten da, Gipuzkoan; gipuzkeraz.
- Partida irabazi dugu, izan ere; ederto jokatu dugu.
- Maletan galtzak; aterkia; eta, giltzak sartu ditut.
- Neguan; eskiatu egiten dut, udan; berriz, surfean aritzen naiz.

KOMUNIKAZIOA

10 Entzun *3Dko inprimatzea* entzungaia eta erantzun galderei. 

- Azken aldiko zein aurrerapen teknologiko aipatzen da?
- Egin al da moda-desfilerik inprimatutako arrokekin? Non?
- Zer onura dakar arropa inprimatzeak ohiko joskintzaren aldean?

LITERATURA

11 Azaldu. Zer da bertsoa bat-batean sortzea?



12 Azaldu zein den gai-jartzailearen lana bertso-saio batean.

13 Irakurri bertsoak eta erantzun galderei.

AITOR MENDILUZE

Lehenengo lan eguna
hasi det honela
atarira irten ta
sorpresa itzela.
Sentitu nahi nuen bai
etxean bezela
baina esan nizun ama
hau gehiegi zela. (bis)

ANDONI EGAÑA

Etxean beti gose
ta beti asegaitz
hargatik taperrakin
etorri ni garaiz.
Lantegitik irtena
zazpi lagun alaiz
denentzako egin det
zuekin joango naiz. (bis)

- Zein da, zure ustez, bertsoetan azaltzen den egoera?
- Zenbatu bertsolerroak eta silabak eta adierazi bertsoak zein neurritakoak diren.



IDAZTEKO GAITASUNA

Argibide-orria



Idatzi bideo-jokoen kontsolei buruzko argibide-orria. Testuak zehatza eta ordenatua izan behar du eta lau atal izango ditu: sarrera, azalpena, tresnaren osagaiak eta erabilera-aholkuak.

- Lehenik, idatzi sarreratxo bat, eta azaldu zertarako den eta nork asmatu zuen. Horretarako, erabili ondoko fitxako datuak.
- Jarraian, azaldu pausoz pauso nola erabiltzen den. Erabili lokailuak (lehenik, gero, azkenik...) informazioa era ordenatuan emateko.
- Ondoren, zerrendatu bideo-kontsolek ohi dituzten atalak, eta seinalatu atal horiek zure gustuko bideo-kontsolaren argazki batean.
- Azkenik, eman zenbait aholku bideo-kontsola erabiltzeko: noiz eta norekin jolastu, zenbat denboraz jardun gehienez, zer-nolako bideo-jokoetan aritu...



Lehen bideo-kontsola:
Magnavox Odyssey
Sortzailea: Ralph Baer
Noiz: 1972